

Y en verdad que éste aplauso es consolador. Por vez primera un Congreso español inclina la frente ante un hombre de trabajo y de estudio. Hasta ahora los primeros lugares correspondían siempre á los hombres de palabra y de imágenes, de acentos tribunicios y de frases de contraste.

Hoy Alzola, con números, con razonamientos elementales, se ha impuesto, ha dominado á la Asamblea, mientras algunos de sus compañeros, oradores correctos hasta galanos inclusive, hánse visto obligados á poner prematuro fin á sus discursos entre los siseos de los congregados y las increpaciones del público.

...Es este un dato que deben tener en cuenta los futuros muñidores de partidos políticos.

Y bien puede asegurarse que de ésta Asamblea ha salido el señor Alzola con un puesto de primera fila.

Circula con insistencia el rumor de que el nuevo ministerio de Agricultura, Industria y Comercio lo ocupará dicho señor.»

Sería un nombramiento acertadísimo, quizá demasiado bueno para realizado en nuestra querida y desgraciada España.

MARIACHO ELOSEGI ETA LARRAÑAGA

DERITZAN AINGERUARI

Elosegiko familiyaren
 Bizitza Tolosakua,
 Bizitza garbi, bizitza chukun,
 Errurikan gabekua,
 Dalako alde guzietara
 Bizitza Jaungoikozkua,
 Bizitza euskerazkua,
 Bizitza onorezkua,
 Biyotz nereko «sukaldechotik»
 Kantatutzeroa nijua.

Nola dakitan ez daukatala
 Luzarorako bizirik,
 ¡O Mariacho! oroitzacho bat
 Donkitu bear dizut nik,
 Bost sentidubak elbarritubak
 Ta aulak dauzkatararik,
 Kantatzen badet gezurrik,
 Ez izan nizan kupirik,
 Baizikan jarri buruz bera ni
 Izarretatik zinzillik.

¡Ez litzateke besterik palta!
 Jolasten abiyatzia,
 Elosegiko Echadia nik
 Gezurrez apaiñdutzia!
 Ez nuke nai, ez, dagoan baño
 Gorago alchatutzia,
 Ez eta beeratutzia,
 Ain guchi mugitutzia,
 Nai detana da egiyarekin
 Kantari onratutzia.

Errota koškor šimur batean
 Izen au argi bat bazan,
 Alaz guziyaz ekaitzen gatik
 Beiñere illundu etzan,
 Baizik ondoren bere kayaurren
 Eguzki printzaz jantzi zan,
 Arrezkeroztik Tolosan,
 Obra onakin du esan,
 Arkitzen dala diz-diz egiñaz
 Jaungoikoaren Elizan.

Aita oso bat dalako izan
 Ongite¹ eche barruan,
 Urretan bere izen gozoa
 Irakurtzen dan lekuan,
 Gurasoa da «Chapeltegiyan»
 Da aita on bat kanpuan,
 Kristau osoen moduan,
 Dabilelako munduan,
 Da bizitutzen etsairik gabe
 Lurreko Paradisuan.

Maite badute biyotz aundi au
 Señide eta aideak,
 Ez dadukate, ez, salduzteko
 Pobre lotsazko jendeak,
 Naiz Jaungoikuan izeneko... ta...
 Naiz mojak eta praileak,
 Naiz zarrak eta gazteak,
 Alayak eta tristeak,
 Bedeiñkatutzen dituzte chit maiz
 URI-MARIAN atek.

Ondo merezi dubena bada
 Bere Tolosa guriyan,
 Dabil beraren izen aundiya
 KOLONEN Munduberriyan,
 Dabil Afrikan, Ozeanian
 European eta Asiyan,
 Dabil bere Jauregiyan,
 Bai ere Loretegiyan,
 Dabil gozatzen, zuzen pensatzen
 «Talomuñoko» mendiyen.

Bizitu bitez ondo egille
 Zaldun chit argidotarrak,
 Gure Tolosa dan bezelako
 Leñargi eta Leyalak,
 Animan senti dituztelako
 Ibar-mendiyen negarrak,
 Elosegiko izarrak,
 Nola diraden sugarrak,
 Dira sayatzen pištu ditezen
 Euskaldun lege «igarrak».

RAMOS AZKARATE-KUAK.

(1) Beneficencia.